



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2020/0535 DEKRETUA

GAIA: OSTALARITZAKO LOKALEK IXTEKO ORDUTEGIA LUZATZEA

ESP.ZK.: H-1354

2020ko otsailaren 10ean 2020/0107 Alkate Dekretu bidez Udalak Ostalaritzako lokalak ixteko ordutegi orokorra ordu bi luzatzeko erabakia hartu zuen egun zehatz batzuetan, horien artean egun honetan:

o **Ekainaren 27an (larunbata)**

Ikusirik, 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena, Udalak Ekainaren 27an ospatu behar zen Zapato Azule festaren egunari dagokion ostalaritzako lokalak ixteko ordutegi orokorra bi orduz luzatzeko erabakia bertan behera uztea erabaki du.

Alkatetza honek, legeak emandako ahalmenak erabiliz, honako hau **ERABAKI** du:

Lehena.- Bertan behera uztea ekainaren 27an ospatu behar zen Zapato Azule egunaren ordutegi luzapena, 2020ko otsailaren 10eko 2020/0107 Alkate Dekretu bidez onartua. Beraz, egun horretarako **baimendutako ixteko ordutegia** honela gelditzen da:

- Bigarren taldekoak (tabernak, ardandegiak, edalekuak, kafetegi-tabernak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak, sagardotegiak eta antzekoak).....03:00etan
- Hirugarren taldekoak (taberna bereziak, whiskitegiak, klubak, bar amerikarrak, pubak, disko-barrak, karaokeak eta antzekoak).....04:30tan
- Laugarren taldekoak (Dantzalekuak, dantza-aretoak, diskotekak, kafe-teatroak, ikuskizunak dituzten jatetxeak eta antzekoak).....06:30tan

Bigarrena.- Erabaki honen berri dagozkion ondorioetarako, herritarrei, tabernariei, udaltzaingoei eta Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari jakinaraztea.

Ondarroan, 2020ko ekainaren 17an

Ondarroako Alkatea
Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

